

Azaroaren 11n
URTEAN ZEHARREKO 32. IGANDEA

Agurra

Jesu Kristo gure Jaunaren bakea izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Jainkoak ematen dizkigun ondasunetan parte hartzen dugu: Bere hitza eta Eukaristiako janaria ematen dizkigu. Horrek gure aldetik ere garen guztia jartzea eskatzen du, ospakizun hau benetako elkarbanatze izan dadin.

Damu-otoitza

Eukaristia ospatzeko, eska dezagun Jaunaren errukia.

—Jesus Jauna, gure salbatzaile zarena. Erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gure askatzaile zarena. Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gure bitarteko zarena. Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara

Otoitza

**Jainko ahalaguztidun errukiorra,
bazertertu gugandik eragozpen guztiak,
gorputz eta arimaz geure buruaren jabe izan gaitezen
zure nahia betetzeko.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoaren Hitza entzutea eta barneratzea beharrezkoa dugu gure bizitzarako. Bakarrik egin dezakegun ekintza eder honek, kolore berezia hartzen du elkarrekin egitean. Jainko beraren jarraitzaile eta entzule baikara guztiok. Entzun ditzagun bere irakaspen ederrak.

Lehenengo irakurgaia (1 *Erg* 17, 1016)

Erregeen liburutik

Egun haietan, jaiki zen Elias, eta Sareptara joan zen. Hiriko ateetara iritsi zenean, emakume alargun bat zebilen han, zotzak biltzen; Eliasek deitu eta esan zion: «Ekardazu ontzian ur pixka bat edateko». Eta bila zihoala, atzetik oihu egin zion: «Ekardazu ogi zati bat ere eskuan».

Hark erantzun: «Hala Jauna, zure Jaungoikoa! Ez dut ogirik; eskutada bat irin besterik ez daukat katilu batean, eta olio pixka bat olio ontzian; hain zuzen, oraintxe nindoan zotzak biltzera, niretzat eta nire semearentzat opila egiteko; hura jan, eta hil gaitezen».

Eliasek esan zion: «Ez izan beldurrik; joan eta egizu esan duzuna; baina egidazu lehenbizi niretzat sutopil txiki bat, eta ekar iezadazu; zeuretzat eta zure semearentzat gero egingo duzu. Hau baitio Jaunak, Israelgo Jaungoikoak: «Irinik ez da ahituko katiluan, ezta oliorik agortuko ere olio ontzian, Jaunak lur gainera euria bidaliko duen egunera arte».

Joan zen emakumea eta egin zuen Eliasek esana; eta jan zuten Eliasek eta ama-semeek; eta arrez gero ez zen irinik ahitu katiluan, ezta oliorik agortu ere olio ontzian, Eliasen ahoz Jaunak esan zuen bezala.

Erantzun-salmoa (*Sal* 145, 6c-7ab. 7c-8. 9-10)

Go - ra Jain - ko - a, e - gin kan - tu, bi - hotz hau - tsi -
ak biz - ten di - tu.

Leiala da betiren beti,
ematen die eskubidea zapaldu*e*i,
ogia gose direnei. R/.

Atxilotuak Jaunak askatzen ditu,
itsuen begiak Jaunak argitzen ditu.
Konkor daudenak Jaunak ditu zutiarazten,
zintzoak Jaunak ditu maitatzen. R/.

Arrotzak Jaunak ditu zaintzen,
umezurtz eta alargunak laguntzen,
eta gaiztoen asmoak eragozten.
Errege izango da Jauna sekuletan,
zure Jainkoa, Sion, menderen medetan. R/.

Bigarren irakurgaia (*Heb 9, 24-28*)

Hebrearrei egindako epistolatik

Kristo ez zen sartu, giza eskuz egindako santutegi batean, egiazkoren antzera egindakoan baizik, zeruan bertan; orain gure alde Jaungoikoaren aurrean bitarteko dugularik. Eta ez du bere burua askotan eskaintzen, apaiz nagusia besteren odolarekin santutegian urtero sartzen zen bezala; horretarako askotan hil beharko zukeen,

munduaren hasieratik; baina orain, garaiak bete direnean, behin bakarrik agertu da, bere burua opari emanaz, bekatua ezerezteko.

Eta gizakientzat behin bakarrik hiltzea erabakia dagoen bezala eta gero auzia, era berean Kristok, askoren bekatuak kentzeko, behin bakarrik eman zuen bere burua opari; bigarren aldiz, bekatuarekin zerikusirik gabe agertuko zaie Beraren zain daudenei, haiek salbatzeko.

Aleluia (Mt 5, 3)



Zorionekoak, gogoz behartsu direnak;
berena dute eta zeruetako erreinua. R/.

Ebanjelioa (Mk 12, 38-44)

Homiliarako argibideak

Bizitzeko behar zuena eman zuen

Krisiaren ondorioz, gero eta pobre gehiago dago gure herrialdean. Makroekonomia errekuperatzen ari omen da, baina pertsona xumeek ez dute hobekuntzarik nabari, ezta enpresa txikiek ere. Nolanahi ere, berri ona da pertsonak Caritasi laguntzen jarraitzea, baliabide gutxiago eduki arren. Europako gobernuak itzulunguruka dabilta, errefuxiatuen gaiari ez ezik migrazioari ere seriotasunez aurre egiten ausartu gabe. Hauteskundeak gertu direnez, isildu egiten dira botoak galtzera eraman dezaketan gai horiek. Etorquinek ez dute bozkatzeko,

ezta sistematikoki abstentziora jotzen duen herritarren herenak ere, ez duelako uste aldaketa politikoak egoera aldatuko duenik. Gizarteak egin behar die aurre arazoei, bai, gobernuei bere egitekoa bete dezaten eskatuta. Deigarria da gure herrialdek hain lasai jarraitzea, gizarteak asaldatu gabe, nahiz eta gazteen erdiak baino gehiago langabezian egon. Hainbat alderdi politiko asaldatu dira orain, ezinezko gauzak eskatzeko eta eurek gobernatutakoen gizarte egoera hobetzeko ezertxo ere egin ez izana justifikatzeko.

Jainkoaren Hitzak, Itun Zaharrak batik bat, hainbat aldiz dakar gogora egun **laugarren mundua** deitzen duguna, garatze bidean dauden gure hirietan ere badagoen pobrezia hori. Itun Zaharrean alarguna, umezurtza eta etorkina ageri ziren. Orain, etorkina, langabea, gutxieneko pentsio ez-kontributiboa duen erretiratu eta lanik aurkitzen ez duten hainbat eta hainbat gazte ditugu. Eliasen garaiko alarguna egoera desesperatuan zegoen, bere heriotzaren zein bere semearen heriotzaren zain (1 Re 17,10-16). Lehorre garaian, urriak dira uztak, eta jendeak ahaztu egiten ditu pobreak. Bere miseriaren erdian, profetaren hitzaz fidatzen da, beharrezko jakiak agintzen baitizkio aurrena berari jaten emanez gero. Halaxe egin zuen, eta miraria gertatu zen. Jainkoak ez du albo batera uzten bere bizia Jainkoagatik eta haren mezulariengatik emateko prest dagoena.

Pobreengandik hain hurbil egonda, ez da harritzekoa Jesusek alargunaren irudia aukeratu izana ontasunaren eta bereziki limosnaren adibide gisa. Are probokatzaileagoa da adibidea, alarguna laguntza behar duen pertsona gisa agertuko dela pentsatuta; kasu honetan, ordea, alarguna bera da laguntza ematen duena. Bere jokabidea lege-maisuen jokabidearen kontrakoa da, horiek alargunen ondasunak irensten baitituzte aurrena, azkengabeko otoitzen aitzakiaz, eta gero sosak tenpluko kutxan botatzen (Mc

12,38-44). Letratuaren erlijioa, horren limosna, **apaingarri** hutsa da, jendeari begirakoa. Ez du gizakiaren barrua ukitzen, bizitzako erabaki handiak hartzeko lekua. Hori da erlijio burgesaren arriskua: samin-uneetan kontsolatzen du, edo bizitzari zentzua ematen laguntzen du, edo komunitate bateko kide izateko sentimendua sortzen du. Erlijio apaingarri eta sentimental horrek **ez du bizitza eraldatzen**, ordea, ez eta gure bidegabekeria nazkagarriaren errealitatea eraldatzen ere. Une bakar batean ere ez dugu jartzen arriskuan bizia Jainkoaren eta besteen zerbitzurako.

Horixe egin zuen ebanjelioko alargunak, hain zuzen ere, bere limosna emanda. Bizitzeko zuen guztia eman zuen, bere bizia eman zuen besteen alde. Jokabide eder hori Jesusek gizakiak salbatzeko bere bizia ematearen aurrerapena da. Alargunaren ekintzan horren pertsona osoa dago, eta erruz gairitzen du adierazten duen dohaina. **Azalekoa** ematea da beti gure tentazioa. Ez dugu ukitzen, sekula, beharrezkoa iruditzen zaiguna. Eta gaur egun dena beharrezkotzat jotzea da arazoa, eta ez baten beharretarako nahikoa. Horregatik, txalotzekoa da dutena -euren burua- eskaintzen jarraitzen duten boluntarioen eskuzabaltasuna. Horixe egin zuen ebanjelioko alargunak. Dohain materialak norberaren dohaina adierazten duen heinean bakarrik du zentzua. **Elkartasunez eta eskuzabaltasunez partekatuz** bakarrik edukiko du etorkizuna gure munduak. Ondasunak pobreekin partekatzeko testuinguruan ospatu da beti eukaristia. Ez ditzagun ahaztu, Kristoren gorputzaren parte baitira.

Jainkoaren herriaren otoitza

Egin dezagun otoitz gizaki guztien alde, inoiz falta ez dezaten gure eskuzabaltasuna:

- Eliza barne-bakez bizi dadin beti, honela Ebanjelioaren testigu gartsu izan dadin eta Jauna erdian izateaz poztu dadin. Eska diezaiogun Jaunari.
- Herrietako arduradunei eman diezaiela Jaunak jakinduria eta zuhurtasuna, guztien ongizatearen alde jarduteko. Eska diezaiogun Jaunari.
- Munduan gehien sufritzen dutenak beren ezinetatik arinduak aurki daitezten. Eska diezaiogun Jaunari.
- Guk guztiok, kristau eran jardun dezagun gure eginkizun guztietan, gure lanek fruitu onak eman ditzaten. Eska diezaiogun Jaunari.

Ahulei laguntza ematen diezun Jainkoa, entzun Zure maitasunean uste on duen herriaren otoitzak eta egizu inork beharrezko duena falta ez dezan, Kristoren antzera geure buruak eskain ditzagula guk guztien zerbitzura. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Eukaristia harturik, eskerrak ematen dizkizugu, Jauna,
eta zure bihotz onari eskatzen diogu,
zeure Espiritua isur diezaguzula,
zeruko indarra hartu dugunon bihotzetan
leialtasunaren graziak iraun dezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**